Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 14a, asteartea — 237 — Martes, a 14 de diciembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Hirigintza Sostengagarria

*Donostiako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren berrikuspena: herritarrek parte hartzeko Programa.*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko abuztuaren 3an egindako bileran Donostiako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren errebisioa egiten hastea eta herritarrek parte hartzeko programa onartzea erabaki zuen.

Lurralde-antolamenduko planak eta Hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluak dioena betez, programaren laburpena argitaratzen da.

HAPOKO HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMAREN LABURPENA

Donostiako Udalaren erabakia, indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesua abian jartzekoa, dagokion Herritarren Partaidetzarako Programa egin eta onartzearekin osatu behar da.

Helburu nagusiak ondorengoak dira:

A. Plan Orokor berria lantzen eta izapidetzen ari dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztea, gardentasunetik, eztabaidatik eta iritzi truketik abiatuta, eta, horretarako, herritarren esku hartzea sustatzea.

B. Plan Orokorraren helburu, irizpide eta proposamenen berri ematea, fase guztietan, ahalik eta gardentasun, argitasun eta pedagogia handienarekin, batetik, herritarrek irakurri eta ulertu ahal izan ditzaten, eta, bestetik, horien inguruko eztabaida sustatzeko.

C. Parte hartzeko bide eta gune egokiak, aurrez aurrekoak zein telematikoak, zehaztea eta aktibatzea, helburu osagarri hauek lortze aldera:

a) Herritarrei honako hauek jakinaraztea eta ezagutzera ematea, besteak beste: Plan Orokorraren eginkizuna eta garrantzia, indarrean dagoen 2010eko Plana berrikusteko beharra eta Plan Orokor berriaren helburuak.

b) Herritarrek eta beren jarduera hirian egiten duten entitate, elkarte eta abarrek planteatu eta aurkez dezaketen informazioa, datuak, alternatibak, proposamenak, iradokizunak, iritziak eta abar biltzea.

c) Herritarrei eta hiriko erakunde eta elkarteei helaraztea Plan Orokorraren fase bakoitzaren edukia (informazioa, alternatibak, proposamenak eta abar).

d) Plan Orokorreko alternatiba, proposamen eta abarrei buruzko eztabaida eta iritzi trukea sustatzea, plan hori egiteko eta izapidetzeko faseetan.

e) Herritarrei eta, bereziki, parte hartzaileei jakinaraztea Plan Orokorrean egindako proposamenak nola bideratu diren, bai eta horiek onartzeko edo ez onartzeko arrazoiak ere.

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Urbanismo Sostenible

*Revisión del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián: Programa de participación ciudadana.*

La Junta de Gobierno Local, en fecha 3 de agosto de 2021 acordó Iniciar la elaboración de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián y aprobar el programa de participación ciudadana.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, se procede a la publicación de un resumen de dicho programa.

RESUMEN DEL PROGRAMA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

La decisión del Ayuntamiento de San Sebastián de iniciar el proceso de revisión del vigente Plan General de Ordenación Urbana se ha de complementar con la elaboración y aprobación del correspondiente Programa de Participación Ciudadana.

Sus objetivos principales son:

A. Determinar las medidas necesarias para, complementariamente, garantizar la elaboración y tramitación del nuevo Plan General desde la transparencia, el debate y el contraste de opiniones que requiere y, para ello, incentivar la intervención de la ciudadanía.

B. Dar cuenta de los objetivos, criterios y propuestas del Plan General, en sus distintas fases, con la mayor transparencia, claridad y pedagogía posibles para, por un lado, posibilitar su lectura y comprensión por la ciudadanía y, por otro, incentivar el debate en torno a ellos.

C. Determinar y activar los canales y o espacios de participación presenciales o telemáticos adecuados para, complementariamente:

a) Dar cuenta e informar a la ciudadanía de: el cometido y la relevancia del Plan General; la necesidad de revisar el vigente Plan de 2010; los objetivos del nuevo Plan General; etc.

b) La recogida de información, datos, alternativas, propuestas, sugerencias, opiniones, etc. que pudieran plantear y presentar la ciudadanía y las entidades, asociaciones, etc. que desarrollan su actividad en la ciudad.

c) La transmisión a la ciudadanía y a las entidades y asociaciones de la ciudad del contenido (información, alternativas, propuestas, etc.) del Plan General en sus distintas fases.

d) La incentivación del debate y el contraste de opiniones en torno a las alternativas, propuestas, etc. del Plan General, en sus distintas fases de elaboración y tramitación.

e) Dar cuenta a la ciudadanía y, en particular, a los participantes, del tratamiento de sus propuestas en el Plan General, y de las razones justificativas de su estimación o desestimación.

Edukia zehaztea planteatzen da, fase eta jarduketa hauek bereizita:

2.1. 0 fasea.

Helburua:

— Udalak Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea.

Ekintza:

— Plan Orokorra onartzea hura berrikusteko prozesua hasteko erabakiarekin batera.

2.2. 1. fasea.

Helburuak:

— Publikoki jakinaraztea berrikuspenaren hasiera eta haren administrazio eta partaidetza baldintzak.

— Hartutako erabakiak, abian jarritako Plan Orokorraren berrikuspenaren helburuak eta dagokion Partaidetza Programa argitara ematea.

Ekintzak:

— Aurrez aurreko informazio saioa prozesuaren onarpena eta haren zertarakoa jakitera emateko, bai eta prozesuaren ibilbide tekniko, administratibo eta partaidetzazkoa ere.

— Dagozkion kanal telematikoak martxan jartzea.

2.3. 2. fasea.

Helburua:

— Diagnostikoaren lanketa nola doan jakitera ematea. Edukiak ezagutzera ematea eta zabaltzea.

Ekintza:

— Informazioa eta datuak sortu ahala, horiek bitarteko telematikoetan argitara ematea.

2.4. 3. fasea.

Helburuak:

— Herritarrei kontsulta egitea HAPOaren helburuak eta irizpideak nahiz aukerak zehazten hasi aurretik (39/2015 Legea, 133. artikulua).

— Diagnostikoaren emaitzaren eta kontsulta publikoaren ekarpenen berri ematea.

Ekintzak:

— Kontsulta publiko telematikoa.

— Aurrez aurreko saio irekia.

— Bitarteko telematikoetan argitara ematea.

2.5. 4. fasea.

Helburua:

— Aurreko dokumentuei eta alternatiben proposamenei nahiz Plan Orokorraren Aurrerakinari buruzko eztabaida eta iritzien trukea sustatzea, eta, horretarako, herritarren eta beren jarduera hirian egiten duten erakunde eta elkarteen parte hartzea bultzatzeko neurri egokiak zehaztea.

Ekintzak:

— Aipatutako dokumentuak aurrez azaldutako kanal telematikoetan txertatzea.

— Egokitzat jotzen diren Aurrerakinaren laburpen dokumentuak egitea eta zabaltzea, halakorik balitz.

— Hala badagokio, Aurrerakineko proposamenak jendaurrean jartzea, horretarako egokitzat jotzen diren dokumentu grafikoak eta idatziak (digitalak edo bestelakoak) erabiliz.

Se plantea la determinación de su contenido mediante la diferenciación de las siguientes fases y actuaciones:

2.1. Fase 0.

Objetivo:

— Aprobación del Programa de Participación Ciudadana por el Ayuntamiento.

Acción:

— Aprobación simultánea a la adopción del acuerdo de inicio del proceso de revisióndel Plan General.

2.2. Fase 1.

Objetivo:

— Comunicar públicamente el inicio de la revisión y los términos administrativos y participativos de la misma.

— Publicar las decisiones adoptadas, los objetivos de la revisión del Plan General que se inicia y su correspondiente Programa de Participación.

Acción:

— Sesión informativa presencial para comunicar la aprobación del proceso, el por qué del mismo y el itinerario técnico, administrativo y participativo del mismo.

— Puesta en marcha del o de los correspondientes canales telemáticos.

2.3. Fase 2.

Objetivo:

— Informar sobre el desarrollo de la elaboración del diagnóstico. Dar a conocer y divulgar sus contenidos.

Acciones:

— Progresiva publicación de la información, los datos, en medios telemáticos.

2.4. Fase 3.

Objetivo:

— Consultar a la ciudadanía previo al inicio de concreción de objetivos y criterios del PGOU como de alternativas, (ley 39/2015, art. 133).

— Informar sobre el resultado del diagnóstico y de las aportaciones de la consulta pública.

Acción:

— Consulta pública telemática.

— Sesión abierta presencial.

— Publicación en medios telemáticos.

2.5. Fase 4.

Objetivos:

— Promover el debate y el contraste de opiniones en relación con los documentos anteriores y las propuestas de alternativas, el Avance del Plan General y, para ello, determinar las medidas adecuadas para incentivar la participación de la ciudadanía y de las entidades y asociaciones que desarrollan su actividad en la ciudad.

Acción:

— Inserción de los citados documentos en los canales telemáticos antes mencionados.

— Elaboración y divulgación del o de los documentos-resumen del Avance que, en su caso, se estimen adecuados.

— Realización, en su caso, de una exposición pública de las propuestas del Avance mediante la utilización de los documentos gráficos y escritos (digitales o de otro tipo) que se estimen adecuados para ello.

EK\CV GAO-I-2021-07731

— Hitzaldi, saio eta/edo tailerren programa bat zehaztea eta abian jartzea, helburu hauekin, besteak beste: Plan Orokorraren edo haren aurrerakinaren eginkizuna eta garrantzia ezagutzera ematea; aipatutako dokumentuen edukia aurkeztu eta zabaltzea; dokumentu horietako proposamenei buruzko eztabaida abiatzea; eta parte hartzen duten pertsonek eta erakundeek aurkez ditzaketen beste proposamen batzuk zabaldu eta eztabaidatzea.

2.6. 5. fasea.

Helburuak:

— Aurrerakinaren dokumentua gizarteratzea.

— Parte hartzeko prozesuan esku hartzen duten herritarrek eta erakundeek egindako iradokizunak eta proposamenak onartu diren ala ez jakinaraztea, bai eta bai eta horiek onartzeko edo ez onartzeko arrazoiak ere.

— Hurrengo urratsen berri ematea.

Ekintza:

— Berretsitako dokumentua aurkezteko aurrez aurreko saioa.

— Dokumentua telematikoki argitara ematea.

— Dokumentua parte hartzaileei bidaltzea.

Planaren irizpideak eta helburuak berretsi ondoren zehaztuko da parte hartzea 6.,7. eta 8. faseetan.

2.7. 6. fasea.

Helburua:

— Plan Orokorraren hasierako onarpeneko dokumentuaren proposamenak ezagutzera ematea eta zabaltzea, eta horien inguruko eztabaida eta iritzien trukea sustatzea.

Jarduketak gauzatzea:

— Aipatutako dokumentua aurrez azaldutako kanal telematikoetan txertatzea.

— Egokitzat jotzen diren Plan Orokorraren laburpen dokumentuak egitea eta zabaltzea, halakorik balitz.

— Hala badagokio, Plan Orokorreko proposamenak jendaurrean jartzea, horretarako egokitzat jotzen diren dokumentu grafikoak eta idatziak (digitalak edo bestelakoak) erabiliz.

— Hitzaldi, saio eta/edo tailerren programa bat zehaztea eta abian jartzea, Plan Orokorraren hasierako onarpeneko dokumentua aurkeztu eta zabaltzeko, eta proposamen horien inguruko eztabaida abiatzeko.

— Hitzaldi, saio eta/edo tailerren programa hori adostu eta zehaztea, hasierako onarpeneko dokumentua landu eta erabaki hau hartzearekin batera.

2.9. 7. fasea.

Helburuak:

— Behin betiko onartzen den Plan Orokorraren proposamenak ezagutzera ematea eta zabaltzea.

— Herritarrei eta, bereziki, parte hartzen duten pertsona eta erakundeei, berrikuspen prozesuaren aurreko faseetan egindako iradokizun eta proposamenen inguruan hartutako erabakien berri ematea, bai eta horiek onartzeko edo ez onartzeko arrazoien berri ere.

Jarduketak gauzatzea:

— Plan Orokorra dagozkion kanal telematikoetan txertatzea.

— Plan Orokorraren proposamenen laburpen dokumentua egitea eta zabaltzea.

— Plan Orokorreko proposamenak aurkezteko eta zabaltzeko hitzaldi eta saioen programa bat zehaztea eta abian jartzea.

— Determinación y puesta en marcha de un programa de charlas, sesiones y/o talleres para: dar cuenta del cometido y la relevancia del Plan General o avance; la presentación y divulgación del contenido de los mencionados documentos; la apertura del correspondiente debate en torno a las propuestas de esos documentos; la divulgación y el debate de otras posibles propuestas que pudieran presentar personas y entidades participantes; etc.

2.6. Fase 5.

Objetivos:

— Socializar el documento del avance.

— Dar cuenta de la estimación o no de las sugerencias y propuestas planteadas por la ciudadanía y las entidades intervinientes en el proceso de participación, así como de las razones de dicha estimación o no.

— Informar de los siguientes pasos.

Acción:

— Sesión presencial de presentación del documento ratificado.

— Publicación telemática.

— Envío a los participantes.

La concreción de la participación en las fases 6,7 y 8 se realizará tras la ratificación de los criterios y objetivos del Plan.

2.7. Fase 6.

Objetivos:

— Dar a conocer y divulgar las propuestas del documento de aprobación inicial del Plan General y promover el debate y el contraste de opiniones en torno a ellas.

Ejecución de las actuaciones:

— Inserción del citado documento en los canales telemáticos antes mencionados.

— Elaboración y divulgación del o de los documentos-resumen del Plan General que, en su caso, se estimen adecuados.

— Realización, en su caso, de una exposición pública de las propuestas del Plan General mediante la utilización de los documentos gráficos y escritos (digitales o de otro tipo) que se estimen adecuados para ello.

— Determinación y puesta en marcha de un programa de charlas, sesiones y/o talleres para: la presentación y divulgación de las propuestas del documento de aprobación inicial del Plan General; la apertura del correspondiente debate en torno a esas propuestas.

— Determinación y concreción de ese programa de charlas, sesiones y/o talleres simultáneamente a la elaboración del documento de aprobación inicial y a la adopción de este acuerdo.

2.9. Fase 7.

Objetivos:

— Dar a conocer y divulgar las propuestas del Plan General que se apruebe definitivamente.

— Dar cuenta a la ciudadanía y, en particular, a las personas y entidades participantes, de las decisiones adoptadas en relación con las sugerencias y propuestas realizadas por ellos en las anteriores fases del proceso de revisión y de las razones justificativas de su estimación o desestimación.

Ejecución de las actuaciones:

— Inserción del Plan General en los correspondientes canales telemáticos.

— Elaboración y divulgación de un documento-resumen de las propuestas del Plan General.

— Determinación y puesta en marcha de un programa de charlas y sesiones de presentación y divulgación de las propuestas del Plan General.

EK\CV GAO-I-2021-07731

— Programa hori adostu eta zehaztea, Plan Orokorra behin betiko onartzearekin batera.

— Plana behin betiko onartu ondoren, programa hori gauzatzea.

2.10. 8. fasea.

Helburua:

— Plan Orokorra eta haren helburu eta proposamenak gauzatzeko prozesua ikuskatzea.

Plan Orokorra behin betiko onartzen denean egokitzat jotzen diren erabakiak hartzeko unean egiten da hori; erabaki horiek izan daitezke parte hartzeko prozesuaren fase hau aktibatzeari edo ez aktibatzeari buruzkoak nahiz, aktibatuz gero, horretarako sustatu beharreko jarduerak zehazteari buruzkoak.

Donostia, 2021eko azaroaren 30a.—Jon Mikel Garagarza Roteta, Hirigintzako Antolamendu eta Exekuzio Zerbitzu burua.
(7731)

— Determinación y concreción de ese programa simultáneamente a la aprobación definitiva del Plan General.

— Ejecución de ese programa tras dicha aprobación definitiva.

2.10. Fase 8.

Objetivo:

— Fiscalizar el proceso de ejecución del Plan General y de materialización de sus objetivos y propuestas.

Se remite al momento de la aprobación definitiva del Plan General la adopción de la o las decisiones que se estimen adecuadas en lo referente tanto a la activación o no de esta fase del proceso de participación como, en caso afirmativo, a la determinación de las actuaciones a promover para ello.

San Sebastián, a 30 de noviembre de 2021.—El jefe del Servicio Jurídico Administrativo de Ordenación y Ejecución, Jon Mikel Garagarza Roteta.
(7731)